

# DESBERDINTASUN SOZIALAK ETA KULTURALAK



**Pobrezia.** Garapenerako laguntza nekez heltzen da Darfurko errefuxiatu guneetara, Sudanen.

GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA

DBHko 2. maila

**Arrate Uranga**

*2012ko urtarilean berrikusia*

## LAN-ESKEMA

**Irakasgaiak:** Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

**Gaia:** Desberdintasun sozialak eta kulturalak

**Maila:** DBHko 2. maila

**Saio kopurua:** 8 - 9

**Proposamenaren testuingurua:**

Sekuentzia didaktiko labur hau desberdintasun sozialen zergatiak ulertzeko proposamena da. Zergatien artean pobrezia aztertuko dugu. Pobrezia bake ezaren testuinguruan kokatu behar dugu, konkretuki egiturazko indarkeriaren inguruan. Pobrezia zer den, pobrezia motak, eta egoera horren zergatiak eta ondorioak aztertuko ditugu. Halaber, arazo horri gure gizarteak eta norbanakoak zer-nolako erantzunak ematen dituen mahaira aterako dira.

**Landuko diren oinarrizko gaitasunak:**

<b>Ikasten ikasteko gaitasuna</b>	2., 3., 4., 5., 6., 7., 8 eta 9. jarduerak.
<b>Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna</b>	1., 5., 7., 8. eta 9. jarduerak
<b>Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna</b>	4., 8. eta 9. jarduerak
<b>Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna</b>	1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8. eta 9. jarduerak
<b>Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna</b>	2., 3., 4., 5., 6., 7., 8. eta 9. jarduerak

**Helburu didaktikoak:**

1. Gure gizarteak duen arazo eta erronka nagusienetakoaren zergatiak eta ondorioak ulertzea.
2. Pobreziaren aurrean sentsibilitatea erakustea eta egoera horrekin enpatia sorraraztea.
3. Pobrezia denon erronka eta ardura dela ulertzea.
4. Pobrezia baztertzeko, denon lana beharrezkoa dela ulertzea.
5. Gizartearekin konpromisoa sustatzea.

**Edukiak:**

- Indarkeria moten azterketa kontzeptuala

- Pobreziaren arazoari aurre egiteko, NBEren garrantzia
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala
- Milurteko Garapenerako Helburuak
- NBEren agentzia espezializatuak eta GKEak
- Desberdintasun sozialen faktoreak eta arazoak: gutxiengoak, migratzaileak eta baztertutako taldeak, arrazakeria, gatazka etnikoak eta erlijiozkoak, genero-indarkeria
- Eremuak: ingurukoak zein nazioartekoak
- Egungo gizarte- eta kultura-mugimenduak
- Etorkizunerako erronkak. Bakezko elkarbizitzarako eredua: demokratikoa eta zibilizazioak eta kulturak integratuko dituen, nor bere nortasuna galdu gabe
- Herritarren mugimenduak eta erakunde bakezaleak
- Eragin ekonomikoak eta sozialak
- Hezkuntza- eta kultura-eskaizunak
- Estatu modernoaren ezaugarriak, Europan

**Jardueren sekuentzia:**

- |                      |   |
|----------------------|---|
| <b>Planifikatzea</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>– <i>Indarkeriaren hainbat aurpegi</i>. Sentsibilizazioa eta ikerketarako motibazioa lantzen (1. jarduera).</li> <li>– <i>Eta zer egin dezaket nik?</i> Pobreziaren arazoa denon ardura dela ondorio gisa ulertzen (9. jarduera).</li> </ul>   |
| <b>Burutzea</b>      | <ul style="list-style-type: none"> <li>– Lana garatzea: pobrezia egiturazko indarkeria dela identifikatzen den unetik, dimentsio desberdinak, zergatiak eta ondorioak hausnartzen (2., 3., 4., 5., 6., 7., 8. eta 9. jarduerak).</li> <li>– Taldeko lana eta banakako lana sustatzen.</li> <li>– Arazoa egoki ulertzeko beharrezkoak diren baliabideez jabetzen.</li> </ul> |
| <b>Erabiltzea</b>    | <ul style="list-style-type: none"> <li>– Lortutako informazioa eta baliabideak testuinguru desberdinetan, zahar eta berrietan, aplikatzen.</li> <li>– 6., 8. eta 9. jarduerak.</li> </ul>   |

**Ebaluazio-irizpideak:**

**Adierazleak:**

- Ea ezagutzen dituen gizarteak dituen zenbait arazo: desberdintasun ekonomikoak, diskriminazioa, indarkeria, arrazakeria...
- Ea sentiberatasunik erakusten duen bidezkoak ez diren egoera sozialen aurrean, eta ea aurkitzen dituen horiei aurre egiteko moduak.
- Ea ezagutu eta deskribatzen dituen haren inguru hurbilean edo beste nonbait dauden hainbat gatazka.
- Ea hartzen duen kultura-aniztasuna herrien eta gizabanakoen nortasun eskubidetzat.
- Ea parte hartzen duen eta laguntzen duen haren inguruan sortzen diren arazoak konpontzeko ekintzetan.
- Ea parte hartzen duen taldekako lanak antolatzen eta garatzen.
- Ea ekintzailea den eta besteek egiten dizkioten ekarpenak onartzen dituen.
- Ea haien artean ezarritako arauak errespetatzen dituen.
- Ea arduratsua den.

**Tresnak:**

**A) Jardueren sekuentzian**

Autoebaluazioa (2. eta 3. jarduerak)

**B) Irakasleak erabiliko duen beste edozein**

Proba Idatziak

Ikasleen behaketa

**INDARKERIAREN HAINBAT AURPEGI**

Gizartea oso konplexua da, bertan alderdi ugari daude: ekonomikoak, politikoak, kulturalak, sozialak, erlijiozkoak..., eta denak elkarri loturik daude. Gure lanak pobrezia eta desberdintasun sozialak izango ditu ardatz, baina ez dugu gizartearen argazki hutsa egingo. Pobreziaren eta desberdintasun sozialen zergatiak, ondorioak eta sortzen dituzten arazoei ematen zaizkien irtenbideak aztertuko ditugu. Bukatzeko, nork bere buruari galdera hau egingo dio: eta, arazo horien aurrean, zer egin dezaket nik?

**1. JARDUERA**

Begiratu arretaz. Idatzi argazki bakoitzaren azpian, zeure ustez, argazki horiek zer adierazten duten.

**1.1. Azaleko argazkia**

Jaso lerro hauetan argazkiei buruz egin diren iruzkinak. ....  
.....  
.....  
.....

Ba al dute zerikusirik indarkeriarekin? ..... Arrazoitu erantzuna. ....  
.....  
.....

**1.2.**



Gure ustez, argazki hauek hauxe adierazten dute: .....  
.....  
.....

Ba al du zerikusirik indarkeriarekin? ..... Arrazoitu erantzuna. ....  
.....  
.....


1.3.

**Ama  
bakarra.**

**Lurra  
bezala.**

**Zain dezagun**

Apirilak 22,  
lurraren nazioarteko eguna



Gure ustez, argazki honek hauxe adierazten du: .....

.....  
.....

Ba al du zerikusirik indarkeriarekin? ..... Arrazoitu erantzuna. ....

.....  
.....

1.4.



**Herritarren % 2 inguru erabateko pobrezian bizi da, Hego Euskal Herrian.**  
Caixaren arabera, haurrak, adinekoak, emakumeak eta etorkinak daude pobrezia-egoera handiengan.

Gure ustez, argazki honek hauxe adierazten du: .....

.....  
.....  
.....

Ba al du zerikusirik indarkeriarekin? ..... Arrazoitu erantzuna. ....

.....  
.....

1.5.



ETENGABEKO TRAGEDIA EUROPA BIDEAN.

Gure ustez, argazki honek hauxe adierazten du: .....

Ba al du zerikusirik indarkeriarekin? ..... Arrazoitu erantzuna. ....

## 2. JARDUERA

Irakurri arretaz.

INDARKERIA MOTAK		
<b>Zuzenekoa</b>	<b>Egiturazkoa</b>	<b>Kulturala</b>
Pertsonen kalte fisikoak edo psikologikoak eragiteko asmoz eginiko ekintzak dira.	Indarkeria mota hau sortzen da pertsonak ezin duenean bizimodu duina izan eta giza eskubideez erabat gozatu (pobrezia, gosea, hezkuntzarik eza, zapaltze politikoa, etab.).	Zuzeneko eta egiturazko indarkeria justifikatzeko balio duen indarkeria da (arrazakeria, matxismoa, fanatismoa, etab.).

Ondo ulertu dugu indarkeria mota bakoitza?

Indarkeria mota bakoitza kontuan izanda, jarri **E** ezkerreko zutabearen, esaldia zuzena bada, eta **G**, esaldia okerra bada.

### Adibidez

E	1. Indarkeria fisikoa zuzeneko indarkeria da.
G	2. Pobrezia zuzeneko indarkeria da.

INDARKERIA MOTAK	
	1. Eraso fisikoari edo psikologikoari zuzeneko indarkeria deitzen zaio.
	2. Gatazka belikoak ez dira zuzeneko indarkeriak.
	3. Eskola-jazarpena indarkeria kulturala da.
	4. Arrazakeria zuzentzeko edozein argudio indarkeria kulturala da.
	5. Pobrezia ez da zuzeneko indarkeria, ezta egiturazkoa ere; kulturala da.
	6. Pobrezia egiturazko indarkeria da.
	7. Gosea zuzeneko indarkeria da.
	8. Gosea ez izatea, eskolara joateko aukera izatea, non lo egin izatea... gizakion eskubideak dira. Errespetatu ezean, egiturazko indarkeriaren aurrean gaude.
	9. Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak mantentzeko erabiltzen diren arrazoiek ez dute zerikusirik indarkeria kulturalarekin.
	10. Pertsona guztien bizitza duina bermatzeko legeak beharrezkoak dira, kontrako egoera egiturazko indarkeria da.



### 3. JARDUERA

Gogoratu hiru indarkeria motak, eta borobildu erantzun zuzena.



1980an Karl Frederik Reuterwärd suediar artistak kanoian korapilo bat duen pistolaren eskultura egin zuen.

- a) Armak erabiltzean, **indarkeria kulturalaren** aurrean gaude. Argumentu egokiena da etsaia konbentzitzeko.
- b) Armak hiltzeko tresnak dira. Armekek eraso fisikoak eta gerraren antzeko gatazkak sorrarazten dituzte. Hori **indarkeria zuzena** da.



- a) Bitzita duintasunez garatzeko aukera pertsona guztien eskubidea da. Oinarrizko eskubide horiek ukatzeari **egiturazko indarkeria** deitzen diogu.
- b) Zorte-kontua da, ezin dugu esan zuzeneko, egiturazko edo indarkeria kulturala gauzatu denik.



- a) Desberdintasunak zuritzen direnean indarkeria dugu, **zuzeneko indarkeria**.
- b) Desberdintasunak zuritzen direnean indarkeria dugu, **indarkeria kulturala**.

#### 4. JARDUERA

Agian zuk zeuk ere, zeure azalean, bizi izan duzu indarkeria. Zuk zeuk ere, zugandik kanpo, ikusi izan duzu indarkeria. Jarduera honetan horretaz hausnartuko dugu. Taldeka (launaka, gehienez) zerrendatu ezagutu dituzun indarkeria-egoerak, eta ordenatu indarkeria moten arabera.

ZUZENEKO INDARKERIA	EGITURAZKO INDARKERIA	INDARKERIA KULTURALA
1.	1.	1.
2.	2.	2.
3.	3.	3.
4.	4. Pobrezia	4.
5.	5. Bidegabekeria	5.

#### GIZA ESKUBIDEAK

**Gizarte-justizia** egoera batean, bertako kide guztiek **banatze-justizia** gauzatzeko konpromisoaren alde egiten dute; hau da, gizarteak ekoiztiko ondasunak era orekatuan banatzeko konpromisoaren alde. Bidezko banaketaren irizpideek giza eskubideen garapena ekarri dute.

Giza Eskubideen helburua herritar guztien bizimodu duinak eskatzea da. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala 1948ko abenduaren 10ean sartu zen indarrean, eta Haurren Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala 1959an onartu zen. Hona hemen helbide garrantzitsuenak informazio gehiago jasotzeko:

- <http://www.unhchr.org> (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala 300 hizkuntzatan baino gehiagotan lor daiteke)
- <http://www.unesco.org> (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea)
- <http://www.unicef.org> (Haurren laguntzarako Nazio Batuen Funtsa)
- <http://www.undp.org> (Garapenerako Nazio Batuen Programa)
- <http://www.fao.org> (Elikadurarako eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea)
- <http://www.unep.org> (Ingurumenerako Nazio Batuen Programa)
- <http://www.who.int> (Osasunaren Munduko Erakundea)
- <http://www.oxfaminternational.org> (Garapenerako eskubidea, genero-aztiak eta eskubide sozial eta ekonomikoak ditu bere hezkuntza-jardunaren muina)

## 5. JARDUERA

Irakurri arretaz Haurren Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 9. eta 10. printzipioak:

### 9. printzipioa

Haurra utzikeria, krudelkeria eta esplotazio mota orotatik babestu behar da. Ez da inolako salerosketa motako objektu izango. Debekatuta dago adin egoki jakin batetik beherako haurrek lan egitea. Inolaz ere ez zaio utziko haren osasunari edo heziketari kalte egin diezaiokeen lanik egiten ezta garapen fisiko, mental edo morala oztopa dezakeenik ere.

### 10. printzipioa

Haurra babestu behar da arraza, erlijioa edo beste edozein arrazoiengatik bazter dezaketen praktiketarik. Ulermenaren, tolerantziaren, herrien arteko adiskidetasunaren, bake eta senidetasun unibertsaleko irizpideen arabera hezi behar da haurra, haren indarra eta gaitasunak gainerako gizakien onerako bideratu behar dituela jakinik.

Aurreko jardueretako indarkeria motak kontuan izanda:

**5.1. Zein indarkeria motatik babesten du 9. printzipioak?. Zein eskubide mota bermatzen du?**

Indarkeria.....  
.....  
.....  
.....

Eskubidea.....  
.....  
.....  
.....

**5.2. Zein indarkeria motatik babesten du 10. printzipioak?. Zein eskubide mota bermatzen du?**

Indarkeria.....  
.....  
.....  
.....

Eskubidea.....  
.....  
.....  
.....

<b>POBREZIA AZTERTZEN</b>
---------------------------

**6. JARDUERA**

Gizakiok **beharrizan** asko ditugu, baina badaude **bizirik irauteko behar-beharrezkoak diren baliabideak, ezinbesteko beharrizanak**; izan ere, egon ezean, bitzta arriskuan jartzen dugu. Ezinbesteko beharizan horiek denon **eskubideak** (oinarrizkoak, unibertsalak eta eztabaidaekin) dira.

**6.1.** Batu launaka, eta zerrendatu, batetik, beharrezkoak diren baliabideak, eta, bestetik, ezinbestekoak diren beharrizanak.

Launaka egindako zerrenda	
Beharrezkoak diren baliabideak	Ezinbesteko beharrizanak
<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> </ul>

**6.2.** Adostu launaka idatzitako zerrenda besteekin, eta egin zerrenda bakarra..

Adostutako zerrenda	
Beharrezkoak diren baliabideak	Ezinbesteko beharrizanak
<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> </ul>


## 7. JARDUERA

### Pobreziaren argazkia

Begiratu arretaz argazkiei.



Pobrezia premiazko beharriaren gabezia da, baina pobrezia beste lau aspektu kontuan izan behar ditugu, sakon ulertzeko.



7.1. Aukeratu argazki bat, eta komentatu taldeka bertan agertzen diren pobrezia lau aspektuak.

7.2. Pobrezia lau aspektuetatik zein errepikatzen da argazkietan? Arrazoitu erantzuna.

**7.3.** Elkartu launaka, eta eztabaidatu nor den erabateko txiroa eta nor txiro erlatiboa. Nola definituko zenuke erabateko pobrezia? Eta pobrezia erlatiboa?

**Erabateko pobrezia:**

**Pobrezia erlatiboa:**

## MILURTEKO GARAPENERAKO HELBURUAK

Agerikoa da gure munduan milaka milioi pertsonak ez dutela bizirik irauteko behar-beharrezko baliabiderik; esate baterako, edateko ura, etxebizitza, osasun-laguntza, txertoak eta botikak eskuratzeko aukera... Ez dute ikastetxerik, ezta oinarrizko hezkuntzarako bestelako baliabiderik ere. Miseria eta pobrezia handia lehenbiziko heriotza-kausa da munduan, nahiz eta gaur egun munduko biztanle guztien gutxieneko premiei erantzuteko nahiko baliabide dauden. 1.200 milioi pertsona bizi dira egunean dolar bat baino gutxiagorekin. Munduko analfabetoen artean, bi herenak emakumeak dira. 11 milioi haur bost urte egin aurretik hiltzen dira, sendagarriak diren gaixotasunek jota. Nahiko baliabide daude gosearen eta analfabetismoaren arazoa behin betiko konpontzeko, baina, hala ere, egoera tamalgarria da.

Nahiz eta premiazko beharrianak ase izatea oinarrizko eskubide izan eta teknikaren eta teknologiaren aldetik premiazko beharrianak gauzatzeko zailtasunik ez izan, eskubidea ez da betetzen. Badakizu zein den arrazoa? Bada, borondate politiko eza.





Egoera horren aurrean, 2000. urtean NBEk (Nazio Batuen Erakundeak) Milurteko Aldarrikapena egin zuen, eta bertan 2015. urterako 8 helburu proposatu zituen. Hona hemen 8 helburu horiek:

- 1. Muturreko pobrezia eta gosea amaitzea**
- 2. Lehen Hezkuntza unibertsala lortzea**
- 3. Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia bultzatzea**
- 4. Haurren heriotza-tasa gutxitzea**
- 5. Amen osasuna hobetzea**
- 6. Hiesa, malaria eta beste zenbait gaixotasuni aurre egitea**
- 7. Ingurumen iraunkorra bermatzea**
- 8. Garapenerako mundu osoko lankidetzaren lortzea**



## 8. JARDUERA

8.1. 8 helburu horiei besteren bat gehituko zenioke? Zein? Zergatik?

8.2. Sartu NBEren web-orrian ([www.un.org/spanish/millenniumgoals/index.html](http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/index.html)), eta lortu MGHko (Milurtekoaren Garapen Helburuak) helburu bakoitzak dituen xedeak. Ondoren, idatzi xedeok dagokien ikonoaren azpian, eta pentsatu zer egin dezakegun guk, helburu horiek lortzeko.

 <p><b>1</b></p> <p>MUTURREKO POBREZIA ETA GOSEA AMAITZEA</p>	 <p><b>2</b></p> <p>LEHEN HEZKUNTZA UNIBERTSALA LORTZEA</p>
<p>1. helburua</p> <p>Xedea: .....</p> <p>.....</p> <p>Xedea: .....</p> <p>.....</p> <p>Eta zer egin dezakegu guk?.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>2. helburua</p> <p>Xedea: .....</p> <p>.....</p> <p>Xedea: .....</p> <p>.....</p> <p>Eta zer egin dezakegu guk?.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
 <p><b>3</b></p> <p>SEXUEN ARTEKO BERTIN- TASUNA ETA EMAKUMEEN AUTONOMIA BULTZATZEA</p>	 <p><b>4</b></p> <p>HAURREN HERIOTZA-TASA JAISTEA</p>
<p>3. helburua</p> <p>Xedea: .....</p> <p>.....</p> <p>Xedea: .....</p> <p>.....</p> <p>Eta zer egin dezakegu guk?.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>4. helburua</p> <p>Xedea: .....</p> <p>.....</p> <p>Xedea: .....</p> <p>.....</p> <p>Eta zer egin dezakegu guk?.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>



 <p>5</p> <p>AMEN OSASUNA HOBETZEA</p>	 <p>6</p> <p>HIESARI, MALARIARI ETA BESTE ZENBAT GAIXOTASUNI AURRE EGITEA</p>
<p>5. helburua</p> <p>Xedea: .....</p> <p>Xedea: .....</p> <p>Eta zer egin dezakegu guk?.....</p>	<p>6. helburua</p> <p>Xedea: .....</p> <p>Xedea: .....</p> <p>Eta zer egin dezakegu guk?.....</p>

 <p>7</p> <p>INGURUMEN IRAUNKORRA BERMATZEA</p>	 <p>8</p> <p>GARAPENERAKO MUNDUKO LANKIDETZA BULTZATZEA</p>
<p>7. helburua</p> <p>Xedea: .....</p> <p>Xedea: .....</p> <p>Eta zer egin dezakegu guk?.....</p>	<p>8. helburua</p> <p>Xedea: .....</p> <p>Xedea: .....</p> <p>Eta zer egin dezakegu guk?.....</p>

8 helburu horietatik kanpo, uste duzu besteren bat gehitu beharko litzatekeela?

HELBURUA	HELBURUA
9. helburua Xedea: ..... ..... Xedea:..... ..... Eta zer egin dezakegu guk?..... ..... .....	10. helburua Xedea: ..... ..... Xedea:..... ..... Eta zer egin dezakegu guk?..... ..... .....

**8.3.** Zure ustez, zein da helbururik garrantzitsuena? Zergatik?

**Nazio Batuen Erakundeak** jarri du pobrezia eta gosea amaitzea milurteko lehenengo helburu bezala. Hona hemen NBEren web-orria: <http://www.un.org/spanish/index.shtml>.

Sartu bertan, eta esan zer diren eta zer funtzio duten honako erakunde hauek:


NBE ..... ..... ..... ..... .....	UNESCO ..... ..... ..... ..... .....
UNICEF ..... ..... ..... ..... .....	UNIFEM ..... ..... ..... ..... .....
FAO ..... ..... ..... ..... .....	OMS ..... ..... ..... ..... .....

**8. 5.** Esan aipatutako milurteko 8 helburuek NBEko zein erakunderekin duten lotura estuagoa (bat baino gehiago ere izan daitezke). Eztabaidatu taldean.

## ETA ZER EGIN DEZAKET NIK?

**9. JARDUERA**

Munduko arazoaren aurrean, makina bat bider hauxe entzuten dugu: ez dago zer eginik, ezin da ezer aldatu. Jarrera horrekin, begiak itxi eta ezer egin gabe jarraitzen dugu aurrera.

**9.1. Jarri hitzak honako marrazkiei**

Badago beste aukera bat: gure inguruari begiratu, kontzientzia hartu eta, nor bere neurrian, mundua aldatzeko ekintzak burutu. Uruguaiako Eduardo Galeano idazleak honela dio: “Egin ahal duguna gauza txikitxoak dira, baina egiteko poza pizten dute. Errealitatearen gainean zerbait egitea eta aldatzea, apur bat baino ez bada ere, modu bakarra da errealitatea aldagarria dela frogatzeko”.

**9.2. Komentatu taldeka Eduardo Galeanoren hitzak. Jaso ideia garrantzitsuak.**

**9.3.** Aurreko jardueran (8.4.) ikusi dugun bezala **Nazio Batuen Erakundeak** hainbat agentzia espezializatu ditu (UNICEF, FAO, UNESCO...), munduko arazoei aurre egiteko. Bestalde, premia larriei aurre egiteko, **elkartasun-erakunde** asko ere badaude, eta goseari, gaixotasunei... aurre egiteko proiektuei laguntza ematen diete. Hona hemen batzuk:

- Esku elkartuak: <http://www.manosunidas.org>
- Ayuda en acción: <http://www.ayudaenaccion.org/>
- Intermon-Oxfam: <http://www.intermonoxfam.org>
- Caritas: <http://www.caritas.es>

**9.4.** Gizarte-elkartasuna guztion betebeharra da, baina ez bakarrik teorian, praktikan ere bai. Hona hemen praktikan jarri ditzakegun proposamen batzuk:

a) Ekintza pertsonalak:

- Lortu GKE bati buruzko informazioa. Bilatu elkarte horrekin lan egiteko moduak, eta pentsatu ea prest zauden laguntza emateko.
- Etorkizunean, lanean hasten zarenean, X euro irabaziko dituzu. Pentsatu kantitate horren ehuneko zenbat emateko prest egongo zinatekeen.

b) Ikastetxerako proposamenak:

- Hitz egin zeure ikastetxeko idazkariarekin (diruzainarekin) eta Eskola Kontseilukoekin, eta proposatu elkartasun ekintzaren bat (diru kopurua eman, beste gazteekin harremanetan jarri...).

c) Nire etxerako proposamena:

- Hitz egin familiakoekin (gurasoak, neba-arrebak) gai honetaz etxean, eta proposatu denon artean GKEren bati laguntza ematea.

d) Herrirako proposamena:

- Ezagutu gure udaletxeak duen konpromisoa gizarte-elkartasunarekin, bai herrian baita munduan zehar ere. Urtean zehar, zer kantitate bideratzen da elkartasunera?